



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **2019eko IRAILAREN 17KO BILKURAKO AKTA**

Bilkura : Ohikoa

Eguna: 2019/09/17

Ordua: 19.30etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Josu Ozaita Azpiroz . Alkatea

Maribi Garmendia Oyarbide .Zinegotzia

Juan Mari Iturrioz Goñi .Zinegotzia

Jaione Olano Etxeberria .Zinegotzia

Andoni Olano Manzano .Zinegotzia

**AZTERGAIK:**

Idazkaria: Nekane Lopetegi

### **GAI ZERRENDA**

- 1.-2019-07-16ko bilkurako akta onartzea hala balegokio .
- 2.-Herriko gazte lokaleko giltzak eman aurrez , gazteekin sinatu beharreko agiria adostea .
- 3.-2019ko partaidetzako proposamena aztertu eta erabakitzea.
- 4.-2019eko herri bideen likidazioak , San Juan bidea eta Irabikoak, hain zuzen ere , onartzea .
- 5.-Iberdrolaren proposamenak , argi indarraren optimizazioa eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntua jartzearen inguruan dagokiona erabakitzea .
- 6.-2019-35-39 bitarteko Dekretuak jakinaraztea .
- 7.-2019eko aurrekontuaren exekuzioa eta moldaketaren berri azaltzea , hurrengoan dagokiona erabakitzeko .
- 7.-Galderak eta eskaerak : Parrilla.



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **1.-2019-07-16 BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO .**

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2019-07-16ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira . Alkateak galdetzen zerbait zuzentzeko ikusten den. Mahaikide guztiak ados agertu dira eta dagoen bezala onartuta geratu da.

## **2.-HERRIKO GAZTE LOKALEKO GILTZAK EMAN AURREZ , GAZTEEKIN SINATU BEHARREKO AGIRIA ADOSTEA .**

Herriko gazteek ,herrian bertan lokala izateko eskaera aurkeztu zuen , eta 2019 uztailaren 16 eko Osoko Bilkuran erabaki zen :

Balio anitzeko eraikineko lokal txikiena , gazteen erabilerarako uztea .  
Ate nagusia eta lokaleko ateko giltzak prestatzea, giltza batekin biek irekitzen direla .  
Lokalaren arautegia eta barne araudia eratzea eta beraiekin biltzea .

Udalak , gaurko egunean , gazteek luzatutako proposamenarekin honako arautegia onartu da, eskera orria eta baimenarekin batera :

### **UDALEKO BALIO ANITZEKO LOKALARAREN ERABILTZEKO ARAUDIA**

#### **ARAUDI OROKORRA:**

Udalak, balio anitzeko eraikinean dagoen lokala herriko gazteei utziko die , beraiek luzatu duten eskaerari erantzunez .

#### **ERABILERAREN IRAUPENA**

Lehena.- Aipatzen den lokalen erabilera baimena, urte betekoa izango da, 2019ko irailtik udalak erabaki bitartekoa . Iraupena , bi alderdien adostasunarekin beste bi urtez luzatzea izango da.

#### **ERABILERA MOTA**



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

Bigarrena.- Aipatzen den lokal honetan, funtsezko erabilera hau da:

Herriko gazteak bere eginkizunetarako erabiltzea .

#### ERABILERAREN KOSTUA:

Hirugarrena.- Udalak hartutako erabakian oinarrituaz, lokal hauen argi indarra eta berogailuaren kostua Udalaren gain izango da.

#### UDALAREN ESKUBIDEA:

Udalak, beste edozein ordutan, beste edozein eginkizunetarako beharko balu ere, aste bete aurrez erabiltzaileei jakinarazi eta eskubidea izango du erabiltzeko .

#### LOKALEKO GILTZAK:

Gazteek, sarrerako giltzaren kopia izateko eskubidea izango dute, baina kopiaren kostua bere gain izango da. Giltza , eskaera orria betetzen denean eskuratuko zaie eta bere ordainetan balioa bi eurotako ordaindu beharko dute .

Haserako giltza galtzen bada , bigarren giltza eskuratzearen balioa bost eurotako izango da .

#### LOKALAREN ERABILTZAILEEK:

Lokalaren erabiltzaile , Baliarraingo udalerrian errodatuta dagoen D.B.Htik gorako gaztea izateko eskubidea izango da. Lokalaren erabiltzaile eskubidea izateko, Udalean eskaera orria bete eta ondoren baimena eskuratuko zaie.

#### ERABILTZAILEAREN ESKUBIDEAK:

Aipatutako lokala erabiltzeko eskubidea izango du, arauak beteaz, eta lokalaren partaideek onartutako barne araudia ere bete beharko duelarik.

Kanpo herrikoek bertaratzen direnean, gonbidatu dituen herritarren gurasoek ere jakinaren gainean egon behar dira.



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

## LOKALAREN ORDUTEGIA:

Lokalaren ordutegia barne arautegian beraiek arautuko dute , eta beti kontutan hartu behar dute inguruko herritarrei kalterik ez eragitea .

## LAUGARRENA.- ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK

- a) Lokalaren barruan, erabiltzaileen baimena dutenen zerrenda, orman erantsita bistan egon behar du.
- b) Lokalaren barneko elementuak , gaur egunekoak zaindu behar dira eta dauden bezala utzi behar dira.
- c) Lokalaren ekipamendua erabiltzaileei dagokie, eta beraien jabetzakoa izango da.
- d) Lokalean musika edo telebista jartzen denean, inoren eskubideak ez dira urratu behar, eta horretarako bere neurriak hartu behar dituzte, adibidez musikaren eta edozein doinuaren bolumena.
- e) Lokalean TABAKO ETA ALKOHOLIK ezingo da sartu, erabili, eta kontsumitu ere.
- f) Lokalean askariak antolatu daitezke, erabiltzaile baten zorionak direlako, baina inoiz ezingo da alkohola eta tabako edo antzekorik sartuko.
- g) Lokalaren garbitasuna erabiltzaileen gain izango da, barne arautegian jaso behar dutelarik.
- h) Lokaleko giltzaren kopia bana, partaide diren guztiei emango zaie, erabiltzaileen artean antolatu daitezten.
- i) Erabiltzaileek barneko arautegia erredaktatu, eta udalari helarazi beharko die, hurrengo atalak arautu behar dituztelarik: Garbiketa noiz, nork eta nola egingo duten; Argia itzaltzearen ardura banaketa nola izango den; Berogailuaren ardura nola izango den; e.a.

## .- UDALAREN ESKUMENAK

Udalak bere aldetik, lokala ikuskatzeko aukera izango du edozein ordu eta egunetan.



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

## .- ERABILTZEKO ESKUBIDEA UKATZEA

Udalak ikuskatu eta bete ez direla egiaztatzen badu, lehenengo abisua emango dio, bai gazteari, bai taldeari eta bai gurasoari ere. Udala bigarren abisua ematea behartuta ikusten denean, araua hautsi duelako, arau hautsi duenari edo taldeari, lokalera sartzeko eskubidea ezabatuko zaio.

Eta, kanpo herrikoek bakarrik egotea ere lokalaren erabilera eskubidea amaitutzat emateko arrazoia izango da.

Lokaleko atea irekita, argia eta berogailua ez zaintzea ere nahiko arrazoi izango dira, lehenengo abisua emateko, jarraian egiten bada, erabilera eskubidea ezabatuko zaio.

## .- ERABILERA ZUZENA

Baliarraingo Udalak, erabilera zuzena egitea eskatzen du, eta gazteengan konfiantza jarriaz, inolako berme edo fiantzarik ez du eskatzen. Halere, gazte taldea animatzen du, ekitaldi kultural, kirol ekitaldiak antolatzea. Udala eta udal kideek ere laguntzeko prest daudela jakinarazten da

## BALIARRAINGO LOKALA ERABILTZAILEKO ESKAERA ORRIA

### **Eskatzailearen datuak :**

Eskatzailea :

N.A.N..

Helbidea :

Baliarraingo udalak, lokalareen erabilera arautzeko onartu duen arandia ezagutzen dut /dugu eta bertan xedatzen den erabilera emango diot, adierazitako arauak beteko ditudalarik.

Baliarrainen ,.

Sin: Eskatzailea

Sin:Gurasoa



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

- 1.-Arautegia eta eskera orria onartzea .
- 2.-Giltza bakoitzari ematea eskaera orria bete ondoren eta arautegia eskuratzea .
- 3.-Barne araudia zehaztea : garbiketak , argiaren zaintza , berogailuaren zaintza , ardurak nola banatzen diren e.a. eta udalari aurkeztea .
- 4.-Gazte lokala atondu ondoren , ekitaldi xume bat antolatu eta herritarrei erakustea , horretarako udala laguntzeko prest egonik .

### **3.-2019KO PARTAIDETZAKO PROPOSAMENA AZTERTU ETA ERABAKITZEA.**

2019 urtean,partaidetza lana burutzeko Egia aholkularitzari eskaintza egitea eskatu zitzaion.Hona hemen jasotako eskaintza:





BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

Kontutan hartuaz , 5.410 eurotako gastua laguntzeko eskatu zela eta onartutako diru laguntza 3.000 eurotako dela , Aldundiaren aldetik . Eta gastuaren banaketa horrela aurreikusi zela : kontratazioa 4.960 euro eta bestelako gastuak 450,00 euro .

Kontutan hartuaz , jasotako eskaintzaren gastua udalarentzat 4610,00 eurotako dela .

Gastua hau finantziatzeko , 2019eko aurrekontuan dagokion partida ireki behar dela VI kapituluan , kreditu bat eginez eta 2018eko gerakinak erabiliaz .

Mahaikideek , ERABAKI DUTE :

- 1.-2019 urteko partaidetza egitasmoaren lana Egia aholkularitzari esleitzea .
- 2.-Eta lanari hasera emateko dagokion bilerak antolatzea. Besteak beste , mahaikideek aldetik interes gehien agertu duten gaiak izan dira : jarduera ekonomikoak herrian , hirigintza ..... e.a.
- 3.-Hitzarmena sinatzeko alkatea baimentzea.

#### **4.-2019EKO HERRI BIDEEN LIKIDAZIOAK , SAN JUAN BIDEA ETA IRABIKOAK, HAIN ZUZEN ERE , ONARTZEA .**

Idazkariak ,2018 urteko deialdiari erantzunez , 2019 urtean burutu diren lanak, eta fakturak aurkeztu ditu , eta bide batez , irailaren 15erako zurituak daudela jakitera ematen du , ondoren adierazten den bezala :

SAN JUAN BIDEA :

Onartutako aurrekontua ..... 24.500,00 €  
Onartutako diru laguntza ..... 17.150,00 €....%70a

Egindako inbertsioa :

2018 urtean .....13.001,62  
2019 urtean .....11.879,18  
GUZTIRA.....24.880,80 €





BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

## IRABI BIDEA :

Onartutako aurrekontua ..... 24.600,00 €  
Onartutako diru laguntza ..... 17.220,00 €....%70a

Egindako inbertsioa :

2019 urtean .....11.023,00 (10.648+375)

GUZTIRA.....11.023,00€

## Mahaikideek ERABAKI DUTE :

1.-2018 urteko deialdiari erantzunez egin diren bideen likidazioa onartzea .

### **5.-IBERDROLAREN PROPOSAMENAK , ARGINDARRAREN OPTIMIZAZIOA ETA IBILGAILU ELEKTRIKOAK KARGATZEKO PUNTUA JARTZEAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKITZEA .**

Iberdrolan energiaren optimizaziorako ,udalak Aldundiako erosketa zentralizatuarekin dituen erreziboak aztertu ditu eta honako proposamen hauek luzatu dituela jakitera ematen da .

Pilotalekuaren kontratuan , (393284074) P1 P2 ETA P3ean 15 kw bakoitzean kontratatuak daudela , eta beharrezkoak direnak puntu bakoitzean , 12 kw, 15 kw eta 2 kw izan beharko luketela . Eta, era honetara , urtean 170,75 eurotako aurrezpena egingo litzatekeela .

Udal bulegoetako kontratuan , ( kontutan hartu kontratu honen barruan , beheko lokak eta elkarte ere barne dagoela ) hiru puntuetan 19,800 kw kontratatuak daudela, eta beharrezkoak direna , 11,00 kw, 15,001 kw eta 8 kw direla .Eta era honetara , 498,60 eurotako aurrezpena egingo litzatekeela urtean .

Aldi berean , udal eraikineko teilatu edo bestelako puntuetan eguzki panelak jartzeko eskaintza, eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak jartzeko ere eskaintza egiteko, Iberdrola prest agertu da .

## Mahaikideek ERABAKI DUTE :

Pilotalekuaren kasuan eta udal bulegoen kasuan , potentzia iberdrolak proposatutako neurrietara egokitzea .

### **6.-2019-35-39 BITARTEKO DEKRETUAK JAKINARAZTEA .**



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

Alkateak ondorengo ebazpenak eman dituela jakitera ematen da :  
2019/35: Iñaki Garmendiari materiala uztea .  
2019/36: Herri jaietarako diru laguntza ematea  
2019/37: Josu Ozaitari ,San Juan eguneko jaialdirako materiala uztea.  
2019/38; Alegiako eskolari igeriketa ikastarorako diru laguntza .  
2019/39: Ikaztegietako eskolari igeriketa ikastarorako diru laguntza .

Mahaikideek , jakinaren gainean geratu dira eta ontzat eman dituzte .

## **7.-2019EKO AURREKONTUAREN EXEKUZIOA ETA MOLDAKETAREN BERRI AZALTZEA , HURRENGOAN DAGOKIONA ERABAKITZEKO .**

Idazkariak , korporazio berria izanik , 2019eko haserako aurrekontua eta irailaren 10arteko aurrekontuaren exekuzioa adierazten duen agiriak eskuratu dizkie . Aldi berean , aurrekontuaren egokitzapenak nola egiten diren adierazi da, eta hurrengo bilkurarako aurreikuspen berriak aurkezteko geratu da.

### **7.-GALDERAK ETA ESKAERAK : PARRILLA.**

**Bat.-**Parrilaren konponketa egin dela , 40 eurotako gastua eginez . Parrilaren partaideak dira , elkarteak, gazteen kartillako elkarteak eta udala . Gastuaren zenbatekoa txikia izanik , gazteen kartilletik egitea proposatu da.

**Bi.-**Jaione eta Maribi , haurreskolako ordezkariekin bildu direla eta ondorengo puntuak aipatu dituzte :  
.-Udaletxe atzeko jolastokian dagoen hori elementua puskatua dagoela .  
.-Udaletxe atzean dagoen aterpean , etxetxoa jarri nahiko luketela , betan hainbat jostailu gordetzeko .  
.-Elizaren ondoko jolastokian etxetxoko atea hautsita zegoenez , arriskua kentzeagatik, atea kendu egin dela. Bere odez , haurreskolak zerbait jarriko ote duen geratu zirela .

**Hiru.-**Orendaingo eltxotrail urriaren 19ean izango dela eta Baliarraingo udalak kolaboratzen duela , ondorengo lanak eginez , dio Jaionek :

1.-Abituallamiento deitzen den mahaia jarriaz .Bertan janari eta edaria Baliarraingo udalaren gain izango da . fruitu lehorrak , platanoak , goxokiak , ura , koka kola e.a eta isostar Orendaingo udalak ekarriko du .



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

2.-Ibilbidearen puntu batzuek ere garbitu behar direla eta horiek Jokinek egingo dituela .

2019 urtean ere besteetan bezala kolaboratzea erabaki da .

**Lau.-** Alkateak adierazi du , herrian ondorengo konponketa hauek egitea ikusi dituztela :

- .-Pilotaleku txikiko fokoa
- .-Pilotaleku txikiko atzeko baldosa
- .-Pilotaleku txikiko atea
- .-Elkartetik igotzeko pareteko fokoa
- .-Elementu asko barniza faltan daudela .

Lan hauek gremio bakoitzari burutzeko eskatuko zaie , aurrez udal langileak errepasatu ondoren .

**Bost.-** Baliarraingo udalak duen etxe bizitzaren berri , norbaitek alokatu nahi badu, deia zabaltzea proposatzen du alkateak . Udaleko etxe bizitzaren berri herritarrek badakitela ere esan da . Ez da erabaki garbi bat hartu .

**Sei.-**Liburutegiko zerbitzuari hasera eman behar zaiola eta , beste urteetan bezala , urritik hasi eta ekainaren amaiera arte , astean bi orduz liburu zerbitzua irekitzeko kontratazioa egitea erabaki da. Horretarako herrian deia banatzea erabaki da , ondoren esaten den baldintzarekin :

Deialdi honen ezaugarriak dira :

Lan kontratuaren iraupena : 2019eko urriaren 1etik , 2020eko ekainaren 20 arte .

Lan jarduna : astean bi ordu , astelehenetan

Eginkizuna : Baliarraingo herritarrei sareko zerbitzua eskaintzea eta txartelak egitea behar direnean

Lanpostu hau betetzeko honako baldintza hauek eskatzen dira :

- 1.-EGA tituloa izatea .
- 2.-Eta herrian erroldatua egotea baloratuko da .

Interesa duenak izena emateko azken eguna , 2019eko irailaren 27 a.

Eta besterik ezean , bilera amaitutzat eman du alkateak , gaueko 21:45 etan .



BALIARRAINGO UDALA  
(GIPUZKOA)

Alkateak

Idazkariak